



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

# LAUTAN HIRU

## ANTZERKI TXIKIA - FESTIBAL HANDIA

Antzerki-ekoizpenari laguntza (**2.500 euro**).

- Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Aurtengoa bosgarren aldia izango da.
- Helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere, pieza laburren sorkuntzari lagunduta.

### oinarri-arauak

- Antzezlanek, gehienez ere, 30 minutu eta, gutxienez, 15 minutuko iraupena izan behar dute.
- Testuek euskaraz idatzita egon behar dute.
- Antzezlanak jatorrizkoak eta estreinatu gabekoak izan behar dira; hau da, ez da beste hizkuntza baten itzulpenik edo antzeztan luzeago baten moldaketarik onartuko.
- Era berean, ez dira onartuko antzerako beste laguntzaren bat jaso duten piezak.
- Bakarrizketak ere onartuko dira.
- Lanak areto txikietan antzezteko modukoak izango dira; hau da, formatu txikikoak; hots, giza baliabide eta beharizan tekniko gutxi eskatzen dutenak.

### Gaia eta moldea

- Libreak izango dira.

### epaimahaia eta aukeraketa

- Epaimahaia LAUTAN HIRU antzerki-jaialdiko arduradunek osatuko dute.
- Epaimahaiak lan bakarra hautatuko du.
- Epaimahaiak laguntza ez ematea ere erabaki dezake.
- Epailen erabakia apelaezina izango da. Saria 2.500 eurokoa izango da, eta hautatutako antzeztana 2025eko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatuko litzateke (epaimahaiak jarraipena egingo dio ekoizpen prozesuari).

## ePeak

- Lanak (gidoia + proiektuaren ezaugarri nagusiak) bidaltzeko epea 2024ko urriaren 6an amaituko da.
- Parte hartu nahi dutenek lanari buruzko ahalik eta informazio gehien bidali beharko dute posta elektronikoz.

## BIDALI BEHARREKO DERRIGORREZKO DATUAK

1. Taldearen izena.
  2. Jatorrizko testua (testu-fitxategi batean edo PDF formatuan).
  3. Antzezlanaren zuzendariaren eta gidoilariaren izenak.
  4. Antzezleen izenak.
  5. Laburpena.
  6. Gutxi gorabeherako iraupena.
  7. Antzezteko tokiaren ezaugarriak eta beharrian teknikoak (piezaren bideo laburra – lagin bat– ere lagungarria litzateke).
- > Informazio guztia posta elektronikoz bidaliko da Euskaltzaindiaren helbide honetara: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus), mezuaren GAIAn hauxe adierazita: '**LAUTAN HIRU antzerki-ekoizpenari 2025eko laguntza**'.
  - > Wetransfer edo Filemail bidez ere bidal daiteke (oinarrizko informazioa bideoaz lagunduta badoa).

## ANTZEZLANEN JABETZA

Ikuskizunaren jabetza eta lana beste kulturgune batzuetan antzezteko eskubidea muntaia egiten duen talde edo konpainiarena da, baina etorkizunean egingo litzuketean emanaldien publikitatean beren-beregi azaldu beharko litzateke 'LAUTAN HIRU ekoizpen-laguntza' jaso duela.